

## LOTURA IONIKOA

**LOTURA IONIKOA:** Metal eta ez metalen artean ematen da edo ioi positibo eta negatibo baten artean. (  $\text{NaCl}$ ,  $\text{CaF}_2$ ,  $\text{NaOH}$ ,  $\text{KOH}$ ,  $\text{KClO}$ ,  $\text{CaSO}_4$  )

**METALAK (ELEKTROPOSITIBOAK)** katioia osatzen du, horrela  $8e^-$  lortzen ditu balentzia geruzan  $\rightarrow$  gas geldoaren konfigurazioa lortzeko.  $\text{Na} - 1e^- \rightarrow \text{Na}^+$





**EZ-METALAK (ELEKTRONEGATIBOAK)** anioia osatzen du, horrela  $8e^-$  lortzen ditu balentzia geruzan  $\rightarrow$  gas geldoaren konfigurazioa lortzeko.  $\text{Cl} + 1e^- \rightarrow \text{Cl}^-$

**LOTURA IONIKOA:** ioien arteko erakarpen elektrostatikoa da. Elektroioi erabateko transferentzia gertatzen da metaletik ez-metalera.

**SOLIDOAK DIRA:** ioi positibo eta negatiboz osatutako kristal sarea osatzen da.

**Formula ENPIRIKOAREKIN** adierazten dira.  $(\text{NaCl})_n$ . Hau da,  $\text{Na}^+$  eta  $\text{Cl}^-$  -aren arteko proportzioa sarean (1:1), eta  $\text{NaCl}$  egitura "n" aldiz errepikatzen dela espazioan.

SARE KRISTALINOAN IOI BAKOITZA IKUR KONTRAKO IOIEZ INGURATUTA DAGO



## KONPOSATU IONIKOEN PROPIETATEAK

1.-Giro tenperaturan **SOLIDOAK** izanez **urtze eta irakite puntuak** altuak dituzte (alkalinoenak izan ezik) lotura sendoa delako eta tenperatura altua beharrezkoa da. **IRAKITEAN/URTZEAN APURTZEN DEN LOTURA IONIKOA DA.**


### 2. -DISOLBAGARRITASUNA:

Disolbagarriak dira disolbatzaile polarretan, uretan adibidez ( $\text{H}_2\text{O}$ ). Uraren dipoloek sare ionikoaren ioiak separatzen dituzte eta konposatu ionikoaren ioiak aske geratzen dira urez inguratuta, hau da, disolbatuta.

### 3. -EROANKORTASUN ELEKTRIKOA:

\***Solido** egoeran **isolatzaileak** dira ioiak mugitu ezinik daudelako sare kristalinoan.

\***Urtuta** edo **disolbatuta**; berriz, **eroaleak** dira, ioi aske sortzen direlako.



4.- **HAUSKORRAK** dira. Solido ionikoetan kolpe bat ematean ioi planoak labaintzen da eta ikur berdineko ioiek parekatuta geratzen direnez ioien arteko aldarapen indarrak sortzen dira eta sarea puskatzen da.